

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide fisikoak: Lokal bat, produktuak saldu ahal izateko; ordenagailu bat, webgunea erabilgarria izateko; kamioneta, saldutako produktuak bezeroei garraiatzeko.



Baliabide intelektualak: Iraitzek, Tolosaldeako ikasleek egin beharreko lanaz arduratuko da, hauek eginbeharrekoak aginduz eta dena behar bezala gauzatzen dela ziurtatuz. Horrez gain, Polielastic Cauchos, Fundimeca Metal eta Save the Children enpreekin lanean arituko da, beharrezko materiala hornitu eta gure eginkizunak betetzen dituztela ziurtatzeko. Mikelek mezulari lana egingo du, hau da, webgunean egindako erosketak bezeroenganaino garraiatuko ditu furgonetarekin. Maren gurpilaren diseinuaz arduratuko da, marrazketa teknikoko klaseei probetxua emanez. Azkenik, Eñaut eta Mamandi bezeroekiko

harremanaz arduratuko dira, bai webgunea eta sare-sozialak eguneratzen eta laguntza pertsonala eskeiniz, hau da, aurrez-aurreko zein automatizatutako harremanak eginez, bai erosketak egiteko unean edo ondoren; bezeroak ahalik eta asebeten gera daitezten. Denon artean, kontabilitate kudeaketak egingo ditugu, hala nola, diru sarreren fluxua kontrolatu.

Finantza baliabideak: Hasieran, bazkide bakoitzak 6000€-ko ekarpena egingo dugu, empresa aurrea ematen has gaitzen. Gainera, Tolosaldea Garatzen zein Eusko Jaularitzak eskeinitako diru-laguntzak izango ditugu, non, 27.500€ko ekarpena egingo digutela espero dugu. Beraz, hasierako finantza baliabide totala, 57.500€ izango da.

